

2025eko San Tomas azokan
parte hartzeko oinarriak

LEKEITION ABENDUAREN 21EAN EGINGO DEN SAN TOMAS AZOKARAKO POSTUEN ESLEIPENERAKO OINARRIAK

1- HELBURUA

Lea-Artibai eskualdean lehen sektoreak orokorrean eta lurreko produktuek izan duten eta daukaten garrantzia kontuan izanik, ezinbesteko jotzen da herritarrengana produktu hauek hurbiltzeko ekimenak aurrera eramatea.

Lekeitioko Udalak ulertzen du lehen sektorea garrantzitsua dela ekonomiarentzat, ingurumenarekiko errespetuarentzat, kontsumo jasagarriarentzat eta biztanleriaren osasunarentzat eta funtsezko sektore izanda, bere bideragarritasunean laguntzeko hainbat ekimen aurrera eramaten ditu, besteak beste, azokak.

2- APLIKATZEKO EREMUA

Oinarri hauek, Lekeitioko Udalak, 2025eko abenduaren 21ean antolatuko duen azokan aplikatuko dira. Azokaren ordutegia, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 14:30ak arte izango da.

Azokarako jarriko diren 32 postuetan saldu ahal izateko aldez aurretik lortu behar da udal baimena eta lortu ezean ezingo da parte hartu. Partehartzaile bakoitzarentzat postu kopurua antolatzaileek erabakiko dute, jasotako eskari kopurua eta postu kopuruaren, zein lekuaren arabera. Halaber, antolatzaileek erabakiko dute bakoitzaren kokalekua.

Azokan parte hartzen duten postuek ez dute lurraren erabileraren trukean inolako tasarik ordainduko.

3- BAIMENTZEN DIREN PRODUKTUAK ETA POSTUAK

- a. Baimenduta egongo diren produktuak izango dira osasuneko arriskurik sortzen ez dutenak, berezko autoritateen iritziz, eta noizbehinkako kaleko salmentarako indarrean dauden araudiak debekatzen ez dituztenak.
- b. 51/2024 DEKRETUA, apirilaren 30ekoa, hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzkoa.
- c. Legez eta araututa dauden bestelako baldintza guztiak bete beharko dira.
- d. Postuen kokapena antolatzaileak erabakiko du produktu mota, okupatzen duten espazioa eta momentuko egoera eta baldintzen arabera, beti ere aukeren berdintasuneko irizpidea kontuan hartuko delarik.

4- EKIMENETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

4.1. Elikagaien salmentarako postuak

- Udal baimena izatea.
- Salgai jartzen diren produktuak norberak ekoiztuta izan behar dira. Ez da birsalmentarik onartzen.
- Bere jarduera ekonomikoagatik dagozkion jarduera ekonomikoko epigrafean eta gizarte segurantzaren alta emanda egotea eta ordainketetan egunean egotea.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera nekazaritzako sailak daukan erroldan alta emanda egotea.
- Merkaturatzen dituen produktuen arabera berezko araudiak ezartzen dituen baldintza higieniko sanitarioak eta bestelakoak betetzea.
- Ekimena gauzatzen den egunean salmenta justifikatzen duen agiria jaurtitzeko gaitasuna (salmentako agiria edo tiketa).
- Ontziratutako produktuen kasuan ustiakuntza edo eraldatzeko zentroaren kodearekin identifikatzea.
- Salduko diren produktuak arautzen dituzten baldintza higieniko sanitarioak eta bestelako arauak (mantenimendu, garraio eta manipulatzekoak besteak beste) ezagutu eta betetzen dituela aitortzea bere erantzukizun bakarraren pean.
- Autonomo, mikroenpresa edo enpresa txiki izatea Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritako irizpideak jarraituz.

4.2. Artisauak

Parte hartu ahal izateko Ekonomia Jardueren gaineko Zergan eta gizarte segurantzaren alta emanda egon beharko da derrigorrez eta aurkeztu egingo da. Beharrezkoa denean osasun erregistroa izatea derrigorrezkoa izango da eta hau ere, aurkeztu egingo da.

Aintzat hartuko da erregistro-errolda edo artisau txartela edukitzea.

Artisauak bakoitzak bere baliabideak ekarri beharko ditu (mahai, karpa,...).

Artisauentzako esleitutako tokia baino eskari gehiago jasoz gero, jarduera tradizionalekin zerikusia dutenak eta aurreko azoketan parte hartu dutenak lehenetsiko dira eta antolatzaileen esku egongo da erabakia, ezingo da helegiterik jarri.

4.3. Beste entitateak

Udalak, herriko beste erakunde batzuei lekuak utzi ahalko dizkie, beti ere, 32 postuetatik aparte eta beraiek bilatu beharko dituzte beharrezkoak dituzten baliabideak, baliabide hauek Udalari eskatzeko aukera egongo da. Erakunde hauek, irabazi asmorik gabekoak izango dira eta egun horretako jardunetik jasotzen duten diruaren helburua herriko hezkuntza, ongizate, kultura eta/edo kirola bultzatu edo laguntzea izango da:

- Asegurua izan beharko dute.
- Janaria edo eta edaria salduko dutenen kasuan ezinbestekoa izango da ondoko baldintzak betetzea:

- Postuan ari direnek elikagaien manipulaziorako dagokion ikastaroa eginda izatea.
- 16 urte gutxienez beteta izatea, eta 18 urte alkohola salduko bada.
- Salduko diren produktuak eskualdekoak edo eta ingurukoak izatea lehenetsiko da “erantzukizunpeko adierazpena” aurkeztuta. Bertokoa kontsideratuko da lehentasunez Lea-Artibai eskualdean edo Bizkaian edo Euskal Herrian ekoiztutako produktuak izatea, produktuek horrela ahalbidetzen dutenean.

4.4. Animaliak

Lea-Artibaiko edo inguruetako abeltzainek parte hartu ahal izango dute eta horrela nahi duten abeltzainek euren eskari orria aurkeztu beharko dute Lea Artibaiko Landagarapenerako alkartean. Behin eskari guztiak jaso ostean, herriko animalia ustiategiak lehenetsiko dira eta besteak zozketa bidez esleituiko dira parte hartu ahal izango duten abeltzainak animalia tipologiaren arabera.

Azoka honetan, horrela banatuko da animalien parte hartzea:

Idiak : lote bakarra
Zaldiak: 2 lote
Behiak: 2 lote
Astoak: 2 lote
Ahuntzak: lote bakarra
Ardiak: 2 lote
Euskal oiloa: 2 lote
Antzarrak: 2 lote
Untxiak: 2 lote
Txerriak: 2 lote
Poniak: 1 lote

Animaliak dakartzatenek dietak jasoko dituzte, beti ere ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituztelarik:

Animalia	Dieta	Betebeharreko baldintzak
Idiak	200 € loteko	Lotea: idi pareia
Zaldiak	300 € loteko	Lotea: 4 buru (3 behor eta 1 zaldi).
Behiak	550 € loteko	Lotea: 4 buru, 6 hilabetetik gorakoak
Astoak	300 € loteko	Lotea: 4 buru
Poniak	200 € loteko	Lotea: 4 buru
Ahuntzak (Azpigorriak lehenetsiko dira).	Azpigorriak: 175 € loteko. Besteak: 130€ loteko	Lotea: 4 buru (3 ahuntz eta akerra)
Ardiak	200 € loteko	Lotea: 9 buru (8 ardi eta aharia)
Euskal oiloa	75 € loteko	Lotea: 2 buru (oilo 1 eta oilar 1). 2 lote arraza ezberdinekoak aurkeztu beharko dira eta ustiategi bakarrari esleituiko zaio.

Antzarrak	75€ loteko	Lotea: (eme 1 eta ar 1)
Untxiak	50 € loteko	Lotea: 4 buru
Txerriak	125€ loteko	Lotea: kumeak eta ama edo txerri emea eta arra

Erakusketan parte hartzen duten behi, idi zein zaldiak sokan lotuta egon beharko dira derrigorrez. Animalien dieten kasuetan garraioa sartuta dago, hots, bakoitzak ekarri behar ditu bere animaliak, eta animaliei egin beharreko analisiak antolatzaileen kontura izango dira.

Herriko animaliek lehentasuna izango dute eta besteak, zozketa bidez aukeratuak izango dira. Zozketa egiterakoan kontutan izango da abeltzain bakoitzak ezingo dituela 2 animalia tipologia baino gehiago ekarri ahalik eta abeltzain kopuru handienari parte hartzeko aukera emate aldera. Eskaria animalia gehiagotarako egin ahal izango da. Jasotako eskariak aztertu ostean, antolatzaileek erabaki ahal izango dute bi tipologia baino gehiagorekin parte hartzeko aukera.

Hegaztien kasuan ustiategi bakarrari esleituko zaizkio lote guztiak eta untxiak ere aurkeztu baditu, zozketa berebetean sartuko dira.

Arau hauek ez betetzeak dietak jasotzeko eskubide gabe geratzea ekarriko du, antolatzaileen esku geratzen da dietak eman barik uzteko eskubidea, erabaki honen aurka ez da helegiterik onartuko.

Okelarako behiak:

Aldra bakoitzak 4 buru izan behar ditu eta animalia bakoitzak 6 hilabetetik gora izan behar ditu. Abeltzain bakoitzak nahi duen beste behi ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzerakoan aldra bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Ardiak:

Honako hau izan beharko da aurkeztu beharreko aldra: 9 buru (8 ardi eta ahari bat). Artzain bakoitzak nahi duen beste ardi ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzerakoan aldra bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Zaldiak:

Aldratzat jotzeko gutxienez 4 buru (3 behor eta zaldi 1) izan behar ditu. Abeltzain bakoitzak nahi duen beste zaldi ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzerakoan aldra bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Bestelako animaliak:

Goiko taulan adierazten diren loteak izango dira kontutan, animalia gehiago ekartzen baditu ere, lotean adierazten dena ordainduko da.

Osasun Alorra:

Erakusketara aurkezteko aldra guztiek abereen osasunari buruz indarrean dauden arauak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzaintzako zerbitzuak eskatzen dituen arauak bete beharko dituzte. Urteko analisiak abeltzain bakoitzak bere kabuz egin behar ditu. Analisi hauen kostea dietaren barruan sartuta dago. Azokarako egin beharreko aparteko analisiak antolaketaren kontura izango dira. Abereak garbituta ekarri beharko dira.

Garraioa:

- Abeltzain bakoitzaren esku geldituko da animaliak azoka gunera eramatea, bere kostea dietaren barruan dagoelarik.

- Antolakuntza ez da kargu egiten animalari garraioan eta zamaketa lanetan zehar ezbeharririk balego.
- Kasu guztietan antolatzaileen aldetik baimen berezirik izan ezean, abereak, jendeak ikusi ahal izateko, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 14:30etara egon beharko dira erakusgai. Eta 15:30etarako animalia guztiak egon beharko dira erretiratuta.

5- UDALAREN BAIMENA – ESKARIA ETA DOKUMENTAZIOA

Baimena eskatzeko ondoko agiriak aurkeztu beharko dituzte interesdunek, tipologiaren arabera:

- Elikagai salmentarako postu eskatzaileek:
 - Eskakizun eredua beteta eta sinatuta. (1. Eranskina).
 - Eskakizun orrian adierazten den dokumentazioa gehigarria
- Artisauak:
 - Eskakizun eredua beteta eta sinatuta. (2. Eranskina).
 - Ekonomia jardueran eta gizarte segurantzaren alta.
 - Artisau erregistroko alta.
- Beste entitateak:
 - Eskakizun eredua beteta eta sinatuta. (3. Eranskina)
 - Hurrengo puntuak zehazten dituen txostena:
 1. Helburuak. Zergatik parte hartu nahi duten azokan, zer nolako lotura / harremana duten lehen sektorearekiko
 2. Zer saldu eta erakutsi nahi duten azoka egunean. (zein pintxo mota, taloak, sagardoa, txakolina, sagar zukua, eskola proiektuak, materialak...)
 3. Alergeneoak nola kudeatuko dituzten.
 4. Sukaldeetako funtzionamendua azaldu. Nortzuk izango diren arduradunak
 5. Hornitzaileak. Zeintzuk diren eta zer erosiko dieten. Fakturak gorde behar dituzte.
 6. Zer nolako azpiegitura erabiliko duten. (behar duten azalera zehaztu)
 7. Kontaktua. Arduradun nagusiarena
 - Salduko diren produktuak eskualdekoak edo eta ingurukoak izango direla adieraziz erantzukizunpeko adierazpena.
 - Aseguru polizaren kopia
- Abeltzainak:
 - Eskakizun eredua beteta eta sinatuta. (4. Eranskina)

Behin onartuak direla ebatzitakoan beharrezko dokumentazioa eskatuko zaie bertaratzeko baimena dutenei.

Behin esleipena jaso ostean aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Okelarako behiak - idiak:
 - Animalien banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia.
 - Bankuko kontu korrante zenbakia.
 - Ustiapen txartelaren fotokopia.
 - Ustiapeneko titularraren NANaren fotokopia.
 - Azoka egunean: Jatorri eta Osasun Agiria eta urteko analisiak.
 - BFAk eskatutako aparteko analisi edo eta betebeharren dokumentazioa.
- Ardiak - ahuntzak:
 - Animalien banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia.
 - Bankuko kontu korrante zenbakia.
 - Ustiapen txartelaren fotokopia.
 - Ustiapeneko titularraren NANaren fotokopia.
 - Azoka egunean: Jatorri eta Osasun Agiria eta urteko analisiak.
- Zaldiak - astoak:
 - Animalien banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia.
 - Bankuko kontu korrante zenbakia.
 - Ustiapen txartelaren fotokopia.
 - Ustiapeneko titularraren NANaren fotokopia.
 - Azoka egunean: Jatorri eta Osasun Agiria eta zaldijendea identifikatzeko liburua.
- Bestelako animaliak:
 - Bankuko kontu korrante zenbakia.
 - Ustiapen txartelaren fotokopia.
 - Ustiapeneko titularraren NANaren fotokopia.
 - Azoka egunean: Jatorri eta Osasun Agiria.

Erakunde antolatzaileak, oinarrietan agertzen diren baldintzak betetzen dituela edo eta irizpideetan agertzen diren atalak baloratu ahal izateko, beren-beregi ziurtatu ahal izateko edozein dokumentazio gehigarri eskatu ahal izango dio partehartzaileari.

Izen emateko Lea Artibaiko Landagarapen alkartearen bitartez egingo da, bestelako entitateek izan ezik, hauek Kultur etxean egin beharko dute eta guztiek ezarritako epearen barruan.

6- PROZEDURA

Eskakizunak egiteko epea **urriaren 30etik azaroaren 7ra bitartean** izango da, biak barne.

Ekoizle, artisau eta abeltzainek eskari orriak zein beharrezko dokumentazioa Lea Artibaiko Landagarapen alkarteko bulegoetan aurkeztu beharko dituzte honako helbideetan:

Presentzialki: Xemein Hiribidea, 12, A, Markina-Xemein
Helbide elektronikoz: imendizabal@leartibaifundazioa.eus
www.landagarapenaleartibai.eus azoken atalean, dagokion
galdetegia bete eta dokumentazioa erantsita.

Bestelako erakundeek, Lekeitioko Udalaren bitartez aurkeztu beharko dituzte:

Presentzialki: Resurrección M^a de Azkue, 5 Lekeitio
Helbide elektronikoz: jaiak@lekeitio.eus

Behin eskakizunak jaso ostean Udalaren eskumena daukan organoak ebartziko du baimena ematea edo ukatzea.

Erabaki hau hartzeko Udalak, horrela uste badu, beharrezkoak ikusten dituen txostenak eskatu ahal izango dizkio egoki irizten dien entitateei.

Udal ebazpena (aldekoa zein kontrakoa izan) idatziz komunikatuko zaie interesdunei eta bertan ondoko informazioa jasota geldituko da:

Ebazpena aldekoa izanez gero.

- Baimendutako eskatzaile titularren identifikazioa
- Kaleko salmenta modalitatea (noizbehinkako azoketako salmenta)
- Kokapena eta instalakuntzaren ezaugarriak
- Baimendutako produktuak
- Salmenta egin ahal izateko eguna eta ordutegia
- Baimenaren iraupena.
- Bete beharreko baldintzak, hala balegokio.

OHARRA: Baimen eta agiriak eguneratuak izatea derrigorrezkoa da, ekimenaren datak eta aurkeztutako agirien datak bat etorri behar dute.

Baimen honek behartu egiten du titularra jarduera hori modu pertsonalean garatzeko, zuzenean edo behar den bezala baimendutako langileen edo laguntzaileen bidez.

Ekimena gauzatuko den egunean postua identifikatuta egongo da antolatzaileak emandako edo onartutako euskarriekin. Euskarriak beti kontsumitzaileek ondo ikusteko moduan eduki behar dira postuetan.

Baimenak eskumeneko izaera daukate eta beraz udalak kendu ahal izango ditu horrela egoki ikusten badu emateko arrazoiak aldatu edo betetzen ez direnean. Kentze honek ez du kalte-ordainik erakarriko.

Ebazpena kontrakoa izanez gero:

- Eskatzaile titularren identifikazioa.
- Eskaeraren balorapenean jasotako puntuazioa.

7- POSTUAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Ekimen bakoitzak daukan ezaugarriak kontuan hartuta produktu ezberdin bakoitzaren saltzaile kopurua mugatua izango da.

Lehentasanak erabakitzeko eta eragileak esleitzeko momentuetarako ondoko irizpideak erabiliko ditu Lekeitioko Udalak, gehienez 32,5 puntu lortu daitezkeelarik. Produktu mota baterako puntuazio berdina lortuz gero, produktu mota bereko postuen arteko zozketa

bidez esleituko da postua.

7.1. Elikagaien salmentarako postuak

- Euskal Erkidego Autonomoko kalitateko marka babestuak (Zigilu ekologikoa, Eusko Label, Idiazabal Jatorri Deitura, Bizkaiko, Txakolina Jatorri Deitura, Euskal baserri,...): **5 puntu izendapen bakoitzagatik. _____ Gehienez 15 puntu lortu ahal dira.**
- Elaboratutako salgaien kasuan, nork bere etxaldean sortutako lehengaiak erabiltzeagatik: _____ **5 puntu.**
- Elaboratutako salgaien kasuan baimendutako instalazio propioak dauzkaten ustategiak: _____ **5 puntu**
- Titularra emakumea izatea (sozietatea den kasuetan bazkideen artean emakumezko kopuruaren arabera proportzioan emango dira puntuak): _____ **5 puntu**
- Produktuak garraiatzeko ibilgailu elektriko edo hibridoa erabiltzea: **2,5 puntu**
- Jasangarritasuna eta kutsadura ekiditeko helburuarekin, ekimena egingo den puntutik produktuaren jatorria daukan zentrorainoko 1 kmko distantzia bakoitzagatik (beti ere errepide-saretik neurtua): **minus 0,1puntu . Gehienez 10 puntu kendu daitezkeelarik.**
- Lekeitioko aurreko azoketan justifikatu gabe edo alde zuzenetik jakinarazi gabe bertaratu ez izanak, _____ **minus 10 puntu izango ditu.**

Azoka honetan, horrela banatuko dira postuak:

– Ortuari eta frutak	_____	11 etxola
– Gaztagintza eta esnekiak	_____	4 etxola
– Ogia eta gozogintza	_____	4 etxola
– Eztia	_____	1 etxola
– Haragikiak	_____	3 etxola
– Ahatekiak	_____	4 etxola
– Kontserbak	_____	3 etxola
– Edariak (sagardoa, txakolina, ardoa, artisau garagardoak...)	_____	1 etxola
– Bestelakoak	_____	1 etxola

Ortuari eta frutadunek mahaiko 100€ko dieta jasoko dute, gehienez mahai bi-ren dieta kobratuz eta mahairik onenarentzako saria lortu ahal izango dute. Horretarako derrigorrezkoa izango da gutxienez 6 produktu izatea salgai.

Irizpideei dagokienez, horrela egingo da banaketa:

- Produktuen itxura: _____ **1-5 puntu artean**
- Postuaren antolaketa eta produktuak erakusteko forma: _____ **1-5 puntu artean**
- Postuaren dekorazioa: _____ **1-5 puntu artean**
- Produktuak prezioa jarrita izatea: _____ **1-5 puntu artean**

Ortuari mahai onenaren saria 300€ eta garaikurra izango dira eta egunean bertan azoka zabaltzerakoan postuak aztertuko dituen epaimahaiak erabakiko du. Saria azoka egunean bertan banatuko da 13:30ean egingo den ekitaldian.

Parte hartu nahi dutenek eskari orrian jasoko dute zenbat posturentzako eskaria

egiten duten, antolatzaileek bere esku hartzen dute, eskariko zenbatekoa moldatzeko aukera azokaren dibertsitatearen alde jokatzeko helburuarekin.

Produktu tipologiaren bateko postu guztientzako nahikoa eskari ez badago, beste ataletan esleitutako postuen kopurua handitzeko aukera egongo da, beti ere, baldintzak betetzen dituzten eta beste ataletako kopuruagatik kanpo gelditu direnen artean edo eta epe kanpo aurkeztu direnen artean.

8- SALTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

8.1. Eskubideak

Salmenta egiteko udal baimena jasoko duten pertsonen ondoko eskubideak dauzkate:

- Baimendutako salmenta-postuak betetzea.
- Jendaurrean eta modu baketsuan jardutea, ezarritako ordutegian eta baldintzetan.
- Tokiko agintarien babesa jasotzea.
- Azokaren funtzionamendua hobetzeko egoki deritzen erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu
- Baimenaren titularraren identifikazio-txartela jasotzea, baimenaren funtsezko datuak adierazten dituena.
- Merkatua bertan behera geldituz gero, baimenaren titularrak lehentasun-eskubidea izango du ordezeko merkatuan baldin eta antolatzen bada.

8.2. Betebeharrak

Salmenta egiteko udal baimena jasoko duten pertsonen ondoko betebeharrak dauzkate:

- Azokako hizkuntza eta lehen hitza: herritarrentzako arreta euskaraz emango da, horretarako lehen hitza euskaraz egingo da. Hala ere, herritarrek edozein unetan erabili ahal izango dute hizkuntza aukeratzeko eskubidea. Komunikazio-euskarrietan euskara berrmatuko da (erakustokietako kartelak, errotuluak eta informazio orokorreko elementuak). Ekoizleak horretarako gaitasunik ez duen kasuetan udaleko laguntza jaso ahal izango du.
- Ekoizle bakoitzak bere produktua baino ezin izango du saldu, bere ustiatzean edo baimen sanitarioa daukan establezimendu baten ekoiztutakoak izan behar dute.
- Saltzaile bakoitza produktu motagatik aukeratua izan denez, produktu horiek bakarrik ahal izango ditu saldu.
- Egokitu zaion postua eta espazioa baino ez okupatu.
- Emandako identifikazioaren euskarriak edonork ondo ikusteko moduan edukitzea, bai kontsumitzaile zein udal agintaritzarentzat. Betebehar hau ez betetzeak postuaren altxatzea erakarri dezake eta baita ere, horrela badagokio, zigorra ezartzeko espediente hastera.
- Momentu guztietan indarrean dagoen araudia errespetatu
- Merkaturatzen diren produktuen informazioa eta euren prezioak, eta ekoizleak identifikatzeko kontsumitzaileak behar duen informazioa ondo

- ikusteko moduan eduki denbora guztian. Produktuen prezioak argi eta errakuntzara ez eroateko moduan egongo dira kartel edo etiketen bidez.
- Saltzaileen ibilgailuak ezarritako lekuetan aparkatuko dira
 - Erreklamazio orriak eskuragarri edukiko dituzte eta hori adierazten duen orria ikusgai.
 - Eskaintzen dituzten produktuak neurtu edo pisatzeko araututako baskula edo neurgailua eduki
 - Hotza eskatzen duten produktuak egokiak diren hozkailuetan gordeko dira eta egoki dagokion tenperaturan, bai salmenta unean eta baita garraioan ere.
 - Ezin dira elikagaiak eta euren kutxak lurrarekin kontaktuan izan.
 - Erosleek eskatuz gero salmentako agiria emateko beharrezana daukate (faktura edo tiketa). Bertan ondoko datuak agertuko dira:
 - Datu pertsonalak
 - NAN edo IFK
 - Egoitzaren helbidea
 - Data
 - Produktua
 - Prezioa
 - Kantitatea
 - Sortutako hondakinak biltzen joango dira eta salmentako ordutegia amaitzen denean prestatutako puntuetara eramango dira eta postua eta bere ingurua txukun utzi beharko ditu.
 - Hasteko eta amaitzeko ordutegia errespetatuko da eta bitartean ezin izango da ibilgailurik salmenta esparruan sartu
 - Ekimenak irauten duen artean derrigorrean bete beharko dira begirune, txukuntasun eta garbitasun baldintzak. Saltzen dagoenak garbi egon behar du, baita ere aldean daramatzan arropak eta jarduerarako behar dituen tresnak.
 - Produktua zatitzea baimenduta dagoen kasuetan derrigorrezkoa izango da salmenta-puntu horretan edangarria den ura egotea. Posiblea dute txorrodun ur-biltegiak, xaboi likidoa eta paperezko erabilera bakarreko zapiak edukitzea.
 - Ontziratu gabeko produktuak produzitzen dituzten ekoizle guztiek eduki beharko dute Elikadura Higiene arloko Prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen Norbanako Ziurtagiria eguneratua, ortuari eta fruta kasuak ezean.
 - Elikagaiak ondo ordenatuta jarriko dira ikusgai, sailkatuta eta banan, bakoitzak bere ezaugarri bereziei eusteko eta usainak, zapore arraroak eta kutsadura ekiditeko
 - Azoka amaitzen denean, salmenta-postua eta ingurua garbi eta txukun utzi beharko dute. Zoladurari, arbolei edo jabetza publikoko ondasunei kalteren bat eraginez gero eurek izango dira kalteak konpontzearen erantzule. Horretaz gain, euren jardueraren ondorioz hirugarren bateri edo batzuei kalte edo galeraren bat sortuz gero (pertsonei edo euren ondasunei) kalte edo galera horien erantzule be izango dira. Beraz dagokien erantzun zibileko aseguruia eduki (eta hori horrela dela egiaztatu) beharko dute.
 - Etorkizunean indarrean egon daitezkeen araudiak betetzeko betebeharra, nahiz eta araudi honetan jaso barik egon.
 - Ekoizpen zentroak ikuskatuak izateko erraztasunak eman.

9- ZIGORTZEKO ERREGIMENA

Udalak zainduko du araudi honetan jasotako betebeharrak betetzea.

Bere eskumenen arabera udalak produktuak eta postuak ikuskatu ahal izango ditu eta horiei buruzko informazioa eskatu.

Saltzeko ipintzen diren produktuak osasun edo segurtasunerako arriskua ekarri badezakete, iruzurrekoak badira, faltsuak badira, identifikatu barik badaude edo saltzeko gutxienekoak ez badira betetzen espedientea zabaltzea erakarri dezakete eta produktuak inkautatzea ere bai.

Beste entitate eta instituzioek dauzkaten zigortzeko eskumenetatik aparte agirian gelditzen diren faltak udalak zigortu ahal izango ditu, araudi honek ezartzen duenaren arabera.

Indarrean dagoen prozedura administratiboak arautzen du zigorrak ezartzea eta errekurtsuak ipintzea ere bai.

Udal baimena daukaten titularrak dira bere postuak okupatzen duten kideen falta eta arau ez betetzearen erantzuleak

9.1. Arauak ez betetzea

Ez betetzeak arinak eta larriak ahal dira izan

- Arinak: araudi honetan jasotako baldintzak ez betetzea baina kontsumitzaileentzat kalte ekonomiko edo osasuneko eraginik ez daukatenak
- Larriak:
 - Arau hauste sanitario larriak eta pertsonen osasuna arriskuan ipintzen dituztenak.
 - Kontsumitzaileei eragin larriak sortzen dizkienak
 - Ordena ekonomikoa apurtzen dutenak

9.2. Zigorrak

Arau hauste arinak: Abisua edota 1.500 €tarainoko isuna

Arau hauste larriak: 9.000 €tarainoko isuna edota hurrengo 4 ekimenetan berriro parte hartzeko eskubidea galtzea

Espedientea ebatzi behar duenak produktuen inkautazioa ere erabaki dezake, faltsuak izateagatik edota identifikazio barik egoteagatik

Lekeition, 2025eko urriaren 14an